# "MUSIKAGILEAK" V. ZIRKUITUKO KONTZERTUA

### *HITZ Xare Laborategiak museoan inspiratutako obren estreinaldi asko izango dituen kontzertu bat eskainiko du Musikagileak Musika Garaikideko V. Zirkuituaren esparruan*

Urriaren 23an, osteguna, 20:00etan, kontzertua izango da San Telmo Museoko elizan, Musikagileak Dantza Garaikideko V. Zirkuituaren barruan. Kontzertuan, musikagile gazteek San Telmo Museoan inspiratuta egindako sei pieza interpretatuko ditu HITZ Xare Laborategiak. Sarreraren prezioa 3 euro izango da, eta museoko txartel-leihatilan eskura daitezke.

Artisten musika-eskaintza horrek balio erantsi bat du. Izan ere, museoko edukietan eta erakusketa iraunkorrean oinarrituta sortu dira sei obrak. *Ilargiaren Itzalak, Hilarri, Aker, Espacio de silencio, Barearen ostean* eta *Bidaiak* obrak, beraz, sortzaile bakoitzak museoko elementu, gai edo guneren baten inguruan egindako interpretazio pertsonalaren emaitza dira.

Zenbait kezka artistikori erantzuteko sorkuntza eta ikerketa musikalean aritzen den kolektiboa dugu HITZ Xare Laborategia.

Musikagileak zirkuituarekin eta Musikenerekin lortutako akordioei esker, sorkuntza musikalean parte hartzen du San Telmok, eta artistari obra bururatzen zaionetik jendaurrean aurkeztu arteko prozesu osoa aurkezten du.  Konposizioen partiturak San Telmo Museoko bildumaren parte izango dira.

Ekimenak, nolanahi ere, euren jarduera aberastuko duten ideiak eta edukiak proiektatzeko kanal bat eskaintzen die sortzaileei, eta, aldi berean, museoaren beste ikuspegi bat planteatzen du, beste arte-diziplina batetik begiratuta.

Era berean, prozesu artistikoekin konprometitutako musikarien ekintzak proiektu pedagogikoen eta txertatze-proiektuen bidez kolektibizatzeko eta alderdi sozialera eramateko urrats bat da.

IFK-CIF A20965422 10278h II 2012-08

**Musikagileek San Telmo Museoan estreinatzeko konposatutako obrei buruz egileek gindako iruzkinak**

## IZENBURUA: "ESPACIO DE SILENCIO"
## MUSIKAGILEA: PAULA ÁLVAREZ

*Ideia sortzailea museoko eta, bereziki, obra estreinatuko den elizako espazioa bera da. Introspekziorako giro egokia eskaintzen duten leku guztiei (elizei, liburutegiei, parke batzuei, museoei eta abar) "isilgune" deitu ohi diet. Obra honek gogoeta pertsonal indibidual batera eramaten ditu bost interpretatzaileak. Interpretatzaile bakoitzaren arimaren giza elikagaia, gainerakoei "isilgune" batean eskainia.*

## IZENBURUA: "ILARGIREN ITZALAK"
## MUSIKAGILEA: XABIER OTAOLEA

*"Ilargiaren Itzalak" obra Remigio Mendiburu Mirandaren "Calendario de la luna" (1977-1979) izeneko zurezko eskulturan inspiratuta dago. Eskultore gipuzkoar horretan inspiratuta, ilargiaren aldien soinua irudikatu nahi duen soinu-material bat lantzen dut. Musika-obra osatzen duten hiru atalak Remigiok ilargiaren formak irudikatzeko zizelkatutako zurezko hiru zirkuluei lotuta daude.*

## IZENBURUA: "Barearen ostean…"
## MUSIKAGILEA: JAGOBA ASTIAZARAN

*San Telmo Museoan interpretatu beharreko obraren enkargua jaso nuenean, leku horrek itsasoarekin duen loturan pentsatu nuen berehala. Itsasotik oso hurbil dago, hurbilegi askotan (azken urteko ekaitzetan, zirraragarria zen olatuak museoaren inguruetara nola iristen ziren ikustea). Baina, aldi berean, itsasoari bizkar ematen diola, aurre egiten ez diola dirudi. Jakina, itsasoa garrantzitsua da museoaren barruan, Donostiako bizitzaren eta ohituren parte garrantzitsua izan baita beti. Adibidez, balearen arrantzan, hainbat ogibide tradizionaletan eta abar agertzen da.*

*Obra honetan, instrumentuak ikusleen inguruan kokatuko dira, eta olatuek itsasoan bezala jardungo dute. Nola elkartzen diren eta hainbat erritmo iragarrezinetan nola iristen diren ikusiko dugu. Gainera, aretoko akustikak zeregin garrantzitsua beteko du. Izan ere, harmoniak sortu eta soinu-lorratzak utziko ditu, olatuek hondarretan uzten dituztenak bezalakoak.*

*"Ekaitzaren ostean barea dator beti" dio esaerak, baina, alderantziz balitz? Barearen ostean... ekaitza? Obraren izenburuak espektatiba bat sortu nahi du. Inoiz iristen ez den ekaitz horren zain egongo gara. Izan ere, barearen ostean... barea dator beti. Tempo motelak, mugimendu melodiko eta harmoniko gutxi, eta keinu txiki bat Nicola Basik arkitektoak Kroaziako Zadar hirian egindako itsasoaren organoari (Morske orgulje).*

## IZENBURUA: "BIDAIAK"
## MUSIKAGILEA: JOSEP MIRA

*Izenburuak berak adierazten duenez, bidaien bitartez euskal mundura egindako hurbilketa bat da, alderdi guztiak kontuan hartuta: kultura, historia, tradizioak, baliabideak eta abar. Eta San Telmo Museoa horren adibidea da. Musika bidez adierazteko, euskal folklorearen musika-alderdi batzuk berrinterpretatzen dira gaur egungo musika-hizkuntza berriarekin.*

IFK- CIF A20 965 422 102 78n = 201 2-08

## IZENBURUA: "AKER"
## MUSIKAGILEA: ALBA SÁNCHEZ

*Obra honen bidez, akelarre bat irudikatu nahi da sinbolikoki. Horretarako, hiru zatitan banatuta dago obra. Lehen zatian, erritu horien inguruko giroa deskribatu nahi du musikagileak (asaldura, misterioa eta beldurra). Horretarako, instrumentuetan eta instrumentistengan zabalduta dauden teknikak darabiltza (aire-soinua, zurdak zuraren kontra igurztea, interpretatzaileen xuxurlak eta abar). Bigarren zatiak maila ia tribal batera eramaten gaitu, eta erritmoa, gorputz-perkusioak eta laudun eta bostun bidezko sonoritateak suaren inguruko dantzak irudikatzeko aukera ematen digute. Hirugarren zatian, berriz, erraietako dantza horrek sakrifizio magikoaren unera eramaten gaitu. Eldarnio eta eroaldi kolektiboko une hori adierazteko, elkarri lotutako motiboak erabiliko dira fortissimo batean, instrumentuen, interpretatzaileen oihuen eta perkusio-elementuen artean. Obran errezitatu beharrekoak (xuxurlak, oihuak, fonetika) jatorria euskal folklore tradizionalean duten bi poema onomatopeikotan oinarrituta daude. Poema horiek Manuel Lekuonak argitaratu zituen Literatura oral vasca liburuan, eta Mikel Laboa bertso horietan inspiratu zen Baga, biga, higa abestia konposatzeko.*

## IZENBURUA: “HILARRI”
## MUSIKAGILEA: JOSE RUBEN CID

*Hilarri obrak museoko hilarrien bilduma du ardatz. Ez da erreferentzia poetiko bat, bildumak dakarren inspirazioa baizik: forma geometrikoak, gurtza eta abar.*

## MUSIKAGILEEN BIOGRAFIA

## PAULA ÁLVAREZ GARCÍA

IFK- CIF A20 965 422 102 78h = 201 2-08

Paula Álvarez García Segovian jaio zen, 1987an. Hamar urte zituela hasi zen musika ikasten, eta gradu profesionala lortu zuen zeharkako txirulako espezialitatean, Segoviako Musika Kontserbatorio Profesionalean. 2009. urtean, *Konposizioa* ikasten hasi zen Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian (Musikene), eta Gabriel Erkoreka, Ramon Lazkano, Stefano Scarani eta Jesus Rueda musikagileak izan ditu irakasle. Azken urteotan, pedagogiaren eremuan osatu du bere prestakuntza. “Musikaste” eta “Emakumeak musikan” izeneko musikaldietan parte hartu du. Lut ganbera-abesbatzaren, Ezmugak elkartearen, Emakumeak Musikan elkartearen eta Segoviako Musika Garaikideko Ensemblearen enkarguak jaso ditu, eta moldaketak egin ditu hainbat motatako banda eta talde instrumentalentzat (Kuraia Ensemblearentzat, adibidez).

## JAGOBA ASTIAZARAN KORTA

2008. urtean amaitu zituen musikako goi-mailako ikasketak Musikenen, “Herri-musika tradizionaleko instrumentuen” espezialitatean. Halaber, musikako titulu profesionala lortu zuen Txistu eta Pianoko espezialitateetan, Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioan. Gaur egun, konposizio-ikasketak amaitzen ari da Musikenen. 2011. urtean, musika-ikerketarako Donostiako Orfeoia/EHU saria lortu zuen. Ikasteaz gain, irakaskuntzan dihardu Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolan, eta Donostiako Udaleko Txistulari Taldeko kidea da 2008. urteaz geroztik. Gainera, 3. saria lortu du Durango Hiria Konposizio Lehiaketan, 2007. eta 2011. urteetan, ”Gau-ero” eta ”baina...” obrekin, hurrenez hurrez.

## JOSE RUBEN CID PEREZ

José Rubén Cid Segovian jaio zen 1987. urtean. 1997an, pianoa ikasten hasi zen Segoviako Musika Kontserbatorio Profesionalean. Ikasketak 2007an amaitu zituen, eta bere promozioko espedienterik onenaren aipamena jaso zuen. 2007. urtean, konposizio eta orkestra-zuzendaritzako espezialitateak ikasten hasi zen Musikenen, eta, besteak beste, Gabriel Erkoreka, Ramon Lazkano, Stefano Scarani eta Zuriñe Fernández Gerenabarrena musikagileen eta Enrique García Asensio eta Manel Valdivieso zuzendarien tutoretzapean egin ditu ikasketak. 2011. urtean, Erasmus programaren barruan, Suitzako hiriburura joan zen, eta bertako Hochschule der Künste Bern ikastegian ikasi zuen Andreas Stahl eta Xavier Dayer musikagileekin, besteak beste. 2012an, Stella izenburuko obra konposizioko INJUVE sarietarako hautatu zuten. Hainbat musikalditan interpretatu dituzte haren obrak, hala nola SINKRO, Klem-Kuraia, Rompeolas edo Musikaste izenekoetan.

IFK-CIF A20965422 10278h = 2012-08

## JOSEP MIRA TOMAS

Josep Mira Tomàs 1989an jaio zen. Bere musika-prestakuntza “l’Escola Comarcal de Música de la Vall d’Albaida” izenekoan hasi zuen, klarinete eta pianoko espezialitateetan. Ondoren, klarinete eta pianoko gradu profesionaleko ikasketak egin zituen “Conservatori Professional de Música d’Ontinyent” izenekoan. Ikasketa horiek “Conservatori Professional de Valencia” izenekoan amaitu zituen, eta klarineteko espezialitateko Gradu Profesionalaren amaierako lehen saria lortu zuen 2009an. Urte horretatik 2013ra bitarte, klarinete eta pedagogiako goi-mailako ikasketak egin zituen Valentziako Joaquín Rodrigo Goi Mailako Kontserbatorioan, eta Juan Ramón Beltrán izan zuen irakasle klarineteko espezialitatean. Urte horietan, gainera, klarineteko hobekuntza-ikastaroak egin zituen Frabizzio Meloni, Enrique Pérez eta Rafael Albert-ekin. 2011. urtean, konposizioa ikasten hasi zen César Cano, Andrés Valero eta Gregorio Jiménez irakasleekin. Gaur egun, konposizio-ikasketak egiten ditu Ramon Lazkano, Steffano Scarani, Jesús Rueda, Gabriel Erkoreka eta Guillermo Lauzurica irakasleekin. Horrez gain, “La raboseta de Otos” musika-bandako kidea da, eta banda-generoko piezak eta beste genero batzuetako moldaketak eta instrumentazioak egiten ditu.

## XABIER OTAOLEA

Xabier Otaolea Delgadok (1989) Juan Crisostomo Arriaga kontserbatorioan egin zituen pianoko ikasketa profesionalak, Ana Aranguren piano-jotzailearen tutoretzapean. Garai hartan, konposizioa ikasten hasi zen Hilario Extremiana orkestra-zuzendari eta musikagilearekin. Konposizio-ikasketak Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian (Musikene) amaitu zituen. Bertan, Gabriel Erkoreka, Ramón Lazkano, Jesús Rueda, Stefano Scarani eta Zuriñe Fernández Gerenabarrena izan zituen irakasle, besteak beste. 2012. urtean, Xabier Otaolearen "Antzemanezin Nahia" obra estreinatu zuen Miguel Ituarte piano-jotzaileak Victoria Eugenia antzokian. Bestalde, Bilbon eta Donostian estreinatu diren film labur batzuk egin ditu. Ildo horretan, aktiboki inplikatu da arte bisualetan, eta arteen bat-egite horretara bideratu du bere etorkizuna musikagile gisa.

IFK-CIF A20 965 422 102 78h = 201 2-08

## ALBA SANCHEZ TORREMOCHA

Salamancan jaio zen 1993ko irailaren 6an, eta 5 urterekin hasi zen biolina ikasten. Ondoren, jaioterriko kontserbatorio profesionalean jarraitu zuen prestatzen, eta oso kalifikazio onak lortu zituen konposizio-funts, piano eta orkestra-ikasketen espezialitateetan. Ikasketekin jarraitzeaz gain, instrumentista da nazioarteko hainbat orkestratan (hala nola Bisyoc International Youth Orchestra, Joven Orquesta Sinfónica Ciudad de Salamanca eta Camerata Antonio Machado izenekoetan). Halaber, lankidetzan dihardu hainbat talderekin, hala nola Gérard Caussé maisuak zuzentzen duen Camerata Caja Duero izenekoarekin eta Arpeggione laukotearekin. Gaur egun, konposizio-ikasketak egiten ditu Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, eta Gabriel Erkoreka, Ramón Lazkano, Jesús Rueda, Stefano Scarani eta Guillermo Lauzurika ditu irakasle. Gainera, besteak beste Elena Mendoza, Johannes Maria Staud, Jesús Torres, Félix Ibarrondo eta Gérard Pesson-en masterclasseak jaso ditu. Gaztea izanik ere, bere obra batzuk hainbat herrialdetan estreinatu dituzte.

# CONCIERTO DEL V. CIRCUITO "MUSIKAGILEAK"

### *HITZ Xare Laborategia ofrecerá un concierto lleno de estrenos de obras inspiradas en el museo, en el marco del V. Circuito de Música Contemporánea Musikagileak*

El jueves 23 de octubre a las 20:00 horas se celebrará en la iglesia del Museo San Telmo un concierto enmarcado dentro del V. Circuito de Música Contemporánea Musikagileak, en el que HITZ Xare Laborategia interpretará seis piezas de jóvenes compositoras y compositores inspiradas en el Museo San Telmo. El precio de la entrada es de 3 euros y se puede adquirir en la taquilla del museo.

Esta oferta musical de jóvenes artistas tiene el añadido de que las seis obras han sido creadas a partir de los contenidos del museo y de su exposición permanente. *Ilargiaren Itzalak, Hilarri, Aker, Espacio de silencio, Barearen ostean y Bidaiak* son el resultado de la interpretación personal que cada artista ha hecho de algún elemento, tema o espacio del museo.

HITZ Xare Laborategia es un colectivo con diversas preocupaciones e inquietudes artísticas, dedicado a la creación e investigación musical.

Gracias a los acuerdos con Musikagileak y Musikene, San Telmo participa en la creación musical, presentando un proceso completo que transcurre desde el momento de su ideación hasta su presentación ante el público.

La iniciativa ofrece a los creadores un canal para proyectar ideas y contenidos que puedan enriquecer su actividad y, al mismo tiempo, plantea una nueva mirada del museo desde otra disciplina artística.

Al mismo tiempo, implica un paso para la colectivización y el vuelco en lo social de las acciones de los músicos comprometidos con los procesos artísticos a través de proyectos pedagógicos y de inserción.

Las partituras de las composiciones pasarán a formar parte del fondo del Museo San Telmo.

**Comentarios de los compositores/as sobre las obras compuestas para su estreno en San Telmo**

TÍTULO : "ESPACIO DE SILENCIO"
COMPOSITORA: PAULA ÁLVAREZ

*La idea generatriz es el propio espacio del museo y, en particular, de la iglesia donde se va a estrenar. Acostumbro a llamar "espacios de silencio" a todos los lugares que ofrecen una atmósfera apropiada para la introspección: iglesias, bibliotecas, algunos parques, museos… Esta obra plantea a los cinco intérpretes inmersos en una reflexión personal individual. Un alimento humano del alma de cada intérprete, ofrecido al resto en un "espacio de silencio".*

IFK- CIF A20 965 422 102 78n II 201 2-08

TÍTULO : "ILARGIREN ITZALAK"
COMPOSITOR: XABIER OTAOLEA

*"Ilargiaren Itzalak" se inspira en una escultura de madera de Remigio Mendiburu Miranda llamada "Calendario de la luna" (1977-1979). Inspirándome en la obra de este escultor guipuzcoano elaboro un material sonoro imaginándome el sonido de las fases lunares. Las tres secciones que conforman la obra musical vienen dadas por los tres círculos de madera que Remigio esculpe emulando las diferentes formas de la luna.*

TÍTULO : "Barearen ostean…"
COMPOSITOR: JAGOBA ASTIAZARAN

*Al recibir el encargo de la obra para ser interpretada en el museo San Telmo, en seguida pensé en la relación que este lugar tiene con el mar. Está muy cerca de él, demasiado cerca muchas veces - durante los temporales de este último año, era impactante ver cómo el oleaje entraba en las cercanías del museo-. Pero, a su vez, parece que le de la*

*espalda, que no se enfrente al mar. Obviamente, el mar no pasa desapercibido dentro del museo porque el mar ha sido parte importante de la vida y costumbres de Donostia. Por ejemplo, está presente en la caza de las ballenas, en diferentes oficios tradicionales…*

*En esta obra, los instrumentos -situados alrededor del público- actuarán como olas en el mar. Veremos cómo se unen y también cómo llegan con diferentes ritmos impredecibles. Además, jugará un papel importante la acústica de la sala, creando armonías y dejando estelas sonoras, como las estelas que las olas dejan en la arena.*

*"Tras la tormenta siempre llega la calma" dice el refrán, pero… ¿y si fuera al revés? Barearen ostean… ekaitza? (Tras la calma… ¿la tormenta?). El título de la obra intenta generar una expectativa. Esperaremos esa tormenta que nunca llega, pues tras la calma… siempre llega la calma. Tempos lentos, pocos movimientos melódicos y armónicos, y un pequeño guiño al órgano del mar (Morske orgulje), construido por el arquitecto Nikola Basik en la ciudad croata de Zadar.*

## TÍTULO : "BIDAIAK"
## COMPOSITOR: JOSEP MIRA

*Como el título indica, se trata de una aproximación, a través de los viajes, al mundo vasco en su integridad -cultura, historia, tradiciones, recursos…- de la que el Museo San Telmo es un ejemplo. Ejemplificado en la música a través de una reinterpretación, con el nuevo lenguaje musical de hoy en día, de algunos aspectos musicales del folklore vasco.*

## TÍTULO : "AKER"
## COMPOSITORA: ALBA SÁNCHEZ

*Esta obra pretende representar, de manera simbólica, la celebración de un akelarre. Para ello, la obra se divide en tres partes. En la primera parte, la compositora pretende describir el ambiente de excitación, misterio y miedo en el que se debían desarrollar estos ritos. Para ello se vale de técnicas extendidas en los instrumentos e instrumentistas (sonido de aire, frotar las crines contra la madera, susurros de los intérpretes…). La segunda parte nos lleva a un plano casi tribal, en el que el ritmo, la percusión corporal y la sonoridad por cuartas y quintas nos permite imaginar las danzas desatadas alrededor de la hoguera. En la tercera parte, esta danza visceral nos conduce al momento del sacrificio mágico. Este momento de frenesí y locura colectiva se verá representada por motivos entrelazados en fortísimo" entre los instrumentos, gritos de los intérpretes, elementos percusivos… Los componentes recitados de la obra (susurros, gritos, fonética) están*

*basados en dos poemas onomatopéyicos procedentes del folklore tradicional vasco publicados por Manuel Lekuona en su libro Literatura oral vasca, en cuyos versos se inspira Mikel Laboa para componer su canción Baga, biga, higa.*

TÍTULO : "HILARRI"
COMPOSITOR: JOSE RUBEN CID

*Hilarri hace referencia a la colección de estelas funerarias. No se trata de una referencia poética sino más bien de la inspiración que evoca dicha colección... formas geométricas, culto, etc.*

## BIOGRAFÍA DE COMPOSITORES/AS:

### PAULA ÁLVAREZ GARCÍA

Paula Álvarez García nace en Segovia en 1987. Con diez años, comienza sus estudios musicales que concluye con la obtención del Grado Profesional en la especialidad de Flauta Travesera en el Conservatorio Profesional de Música de Segovia. En 2009 es admitida en Musikene (Conservatorio Superior de música del País Vasco) para estudiar *Composición* de la mano de Gabriel Erkoreka, Ramon Lazkano, Stefano Scarani y Jesús Rueda. En los últimos años, completa su formación en el ámbito de la pedagogía. Ha participado en festivales como "Musikaste" y Festival de "Mujeres en la música". Ha recibido encargos del Coro de cámara Lut, Ezmugak, La Asociación de Mujeres en la Música o el Ensemble de Música Contemporánea de Segovia y realizado arreglos para bandas y agrupaciones instrumentales de diversa tipología incluyendo el Ensemble Kuraia.

### JAGOBA ASTIAZARAN KORTA

En el 2008 finaliza sus estudios superiores de música en Musikene en la especialidad de "Instrumentos de la música tradicional y popular". También obtiene el titulo profesional de música en las especialidades de Txistu y Piano en el conservatorio Francisco Escudero de San Sebastián. Actualmente está terminando los estudios de Composición en Musikene. Ha sido galardonado con el premio Orfeón Donostiarra/UPV a la investigación musical en el 2011. Compagina sus estudios con la docencia en la Escuela Municipal de Música y Danza de San Sebastián y es miembro

de la Banda Municipal de Txistularis de San Sebastián desde el 2008. Ha obtenido el 3º premio en el Concurso de Composición Ciudad de Durango en los años 2007 y 2011 con sus obras "Gau-ero" y "baina…"

## JOSE RUBEN CID PEREZ

José Rubén Cid, nace en Segovia en 1987. En 1997 comienza los estudios de Piano en el Conservatorio Profesional de Música de Segovia, finalizándolos en 2007 y recibiendo la mención al mejor expediente de su promoción. En 2007 ingresa en Musikene en las especialidades de composición y dirección de orquesta donde ha estudiado bajo la tutela de compositores como Gabriel Erkoreka, Ramon Lazkano, Stefano Scarani o Zuriñe Fernández. Gerenabarrena, y directores como Enrique García Asensio y Manel Valdivieso. En 2011, dentro del programa Erasmus, se traslada a la capital Suiza donde estudia en la Hochschule der Künste Bern, con compositores como Andreas Stahl y Xavier Dayer. En 2012 su obra Stella, es seleccionada en los premios INJUVE de composición. Sus obras han sido interpretadas en festivales como SINKRO, Klem-Kuraia, Rompeolas o Musikaste.

IFK-CIF A20965422 10278h = 2012-08

## JOSEP MIRA TOMAS

Josep Mira Tomàs nace en 1989. Su formación musical empieza en "l'Escola Comarcal de Música de la Vall d'Albaida" en las especialidades de clarinete y piano. Cursa estudios de Grado Profesional de clarinete y piano en el "Conservatori Professional de Música d'Ontinyent", terminándolos en el "Conservatori Professional de Valencia", obteniendo el primer premio fin de Grado Profesional en la especialidad de clarinete el año 2009. Entre 2009 y 2013 estudia Grado Superior de Clarinete y Pedagogía en el Conservatorio Superior "Joaquín Rodrigo" de Valencia, con el profesor Juan Ramón Beltrán en la especialidad de clarinete. Durante estos años realiza cursos de perfeccionamiento de clarinete con Frabizzio Meloni, Enrique Pérez y Rafael Albert. En el año 2011 empieza a estudiar Composición con los profesores César Cano, Andrés Valero y Gregorio Jiménez. Actualmente estudia Composición en Musikene con los profesores Ramon Lazkano, Steffano Scarani, Jesús Rueda, Gabriel Erkoreka y Guillermo Lauzurica. Forma parte de la Banda de Música "La raboseta de Otos", agrupación a la que escribe habitualmente diferentes piezas del genero bandístico así como arreglos e instrumentaciones de otros géneros.

## XABIER OTAOLEA

Xabier Otaolea Delgado (1989) realizó los estudios profesionales de piano en el conservatorio Juan Crisóstomo de Arriaga de la mano de la pianista Ana Aranguren. En esa etapa tomó contacto con la composición a través del director de orquesta y compositor Hilario Extremiana. Finalizó los estudios de composición en el Centro Superior de Música del País Vasco (Musikene) donde recibió clases con Gabriel Erkoreka, Ramón Lazkano, Jesús Rueda, Stefano Scarani y Zuriñe Fernández Gerenabarrena entre otros... En el 2012 fue estrenada su obra “Antzemanezin Nahia” por el pianista Miguel Ituarte en el teatro Victoria Eugenia. Ha realizado diversos cortometrajes que han sido estrenados en Bilbao y Donostia, involucrándose activamente con las artes visuales y proyectando su futuro como compositor en esta fusión de artes.

## ALBA SANCHEZ TORREMOCHA

Natural de Salamanca, nace el 6 de Septiembre de 1993 y tan solo 5 años después comienza sus estudios musicales de violín. Continúa su formación en el conservatorio profesional de su ciudad natal, obteniendo altas calificaciones en las especialidades de Fundamentos de Composición, Piano y Estudios Orquestales. Compagina su formación académica con la participación como instrumentista en varias orquestas internacionales (Bisyoc International Youth Orchestra, Joven Orquesta Sinfónica Ciudad de Salamanca, Camerata Antonio Machado...). A su vez colabora con diversas agrupaciones, como la Camerata Caja Duero -dirigida por el maestro Gérard Caussé- y el cuarteto Arpeggione. Finalmente se decanta por los estudios de Composición, especialidad que cursa actualmente en el Centro Superior de Música del País Vasco, donde recibe clases de Gabriel Erkoreka, Ramón Lazkano, Jesús Rueda, Stefano Scarani y Guillermo Lauzurika. A su vez, ha recibido masterclasses de Elena Mendoza, Johannes Maria Staud, Jesús Torres, Félix Ibarrondo y Gérard Pesson, entre otros. A pesar de su corta edad, algunas de sus obras han sido estrenadas en varios países.